

Non auspezturik, Jaungoikoari  
Biyotzez esker emanik,  
Gauzkalako gaur gozotasunez,  
Pozez, otsarez beterik,

Otoitz egiñik, eska diogu  
Gorde zaitzala Zerutik,  
Mundu au dana desagiñ arte,  
Osto mardulez jaritzirik.

KARMELO

ECHEGARAY-KOAK.

Uztailaren 21.<sup>an</sup> 1883.<sup>an</sup>

## ERRECHIÑOL BATEN ARRENKURAK.

—¿Zergatik zaude, kantatu gabe  
Otseztitzuzko soñuak?  
¿Zergatik zaude mututurikan,  
Tristetzen gure barruak?  
  
¿Zergatik dago mugitu gabe  
¿Zergatik! zure mokoa?  
¿Zergatik zalbiltz, arkitu nairik  
Eskutatzeko sokoa?  
  
¿Ez dezu ikusten nola zelaiya  
Dagon lorechoz beterik?  
¿Nola zuaitzak dauden bertistez<sup>2</sup>  
Apaingarriro jantzirik?  
  
¿Nola loreak zabaltzen duten  
Beren aldean usaiai,  
Galaiturikan ondoan dagon  
Leyar-iturri <sup>3</sup> bizya?  
  
¿Nola kardinchak, birigarroak  
Ta beste chori guztiyak  
Dauden kantatzen chit gogotikan  
Soñu gozotsu poztiyak?

—Guztiyak ditut ikusten, baña...  
Biyotza daukat tristerik;  
Eziñ arkitu det atsegíñik;  
Urrun da poza nigandik.  
  
—Errechiñola ¿zer dezu bada?  
¿Zergatik zera tristetzen?  
¿Zergatik pozak iges egiñik,  
Pena da zutzat jabetzen?  
  
—¿Zer?... ¿Zer?... galdu det ainbes-  
Nuan kabicho gozoa, [te maite  
Kendu dirate atzerritarra<sup>4</sup>  
Ni jayo nintzan chokoa.  
  
Orregatikan nago gaur penaz  
Eta naigabesz beterik,  
Orregatikan ez det arkitzen  
Neretzat iñon gozorik.  
  
Ez daukat pozik, zergatik nagon  
Kabichuloa galdurik;  
Ez daukat pozik, nagoalako  
Amarik gabe, bakarrik.

KARMELO

ECHEGARAY-KOAK.

1883-ko Uztaillean.

(1) Quejas.—(2) Esmeralda.—(3) Fuente cristalina.—(4) Estraños.